

KOSTU EGITURA



Enpresa bat sortzerako garaian, nabarmena da jarduera burutzerako garaian enpresak zenbait kostu edukiko dituela nahi eta nahiz ez. Hain zuzen ere, enpresa batek izan ditzakeen kostuak bi motatakoak izan daitezke: alde batetik, kostu finkoak enpresaren ekoizpena edozein izanda ere derrigorrez ordaindu beharrekoak dira, ez baitaude ekoizpenaren menpe; bestalde, kostu aldakorrak zein ekoizpenaren menpe dauden eta ekoizitako kopuruaren arabera aldatzen diren. Hortaz, InnMaster Cosmetics enpresak honako kostu hauek izango dituela aurreikusten dugu:

Kostu finkoak:

- Dendak kokatuta egongo diren lokalen alokairua (hasieran bi denda propio zabalduko ditugu seguru aski kontsumoa nabarmena eta handia den hirietan, Donostian, Bilbon eta horrelako tokietan esate baterako).
- Lokaleko argindarra eta interneta.
- Sortuko dugun webgunearen hosting-a.
- Produktuak ekoizteko behar izango ditugun makinak.
- Gizarte Segurantza.
- Publizitatea: iragarkiak bai interneten bai dendetan.

Kostu aldakorrak:

- Produktuak ekoizteko behar izango ditugun lehengaiak: soja proteina, almendra olioia, onddo-urea, erremolatxa zukua, karotenoa, arto irina, erretxina begetala, oliba-olioa, galorratza, zuntz sintetikoak eta abar.
- Web-orrialdeko produktuak biltzeko enbalaia..
- Enpresako garraio elementuen erregaia.